



II. fasea >> ARTZENTALESKO TOKIKO EKINTZA PLANA

Tokiko Ekintza Plana tresna boluntarioa da iraunkortasunaren aldeko kudeaketak eta politikak bideratzeko; toki mailako helburu eta ekintzak urte batzuen buruan egin eta lortu behar dira. Ekintza Plana oinarrizko elementua da eta herritarren partaidetza plangintza prozesuaren elementua da.

[EKINTZA PLANA. JOAN](#)

[EKINTZA PLANAREN EGITURAKETA. JOAN](#)

[ESTRATEGIA ILDOAK. JOAN:](#)

1. [ESTRATEGIA ILDOA:](#) **IRAUNKORTASUN IRIZPIDEAK LURRALDE ANTOLAMENDUAN TXERTATU**
2. [ESTRATEGIA ILDOA:](#) **NATUR INGURUNEAREN ETA BIODIBERTSITATEAREN KUDEAKETA IRAUNKORRA**
3. [ESTRATEGIA ILDOA:](#) **MUGIKORTASUN ETA IRISGARRITASUNAREN HOBEKUNTZA.**
4. [ESTRATEGIA ILDOA:](#) **URAREN ZIKOAREN KUDEAKETA IRAUNKORRA**
5. [ESTRATEGIA ILDOA:](#) **HONDAKINEN KUDEAKETA IRAUNKORRA**
6. [ESTRATEGIA ILDOA:](#) **ENERGIAREN KUDEAKETA IRAUNKORRA.**
7. [ESTRATEGIA ILDOA:](#) **OSOKO GIZARTE GARAPENA**
8. [ESTRATEGIA ILDOA:](#) **GARAPEN SOZIOEKONOMIKOA IRAUNKORTASUN IRIZPIDEEN ARABERA**
9. [ESTRATEGIA ILDOA:](#) **PARTAIDETZA ETA KOMUNIKAZIOAREN SUSTAPENA**

EKINTZA PLANAREN EZAUGARRIAK

Hona hemen tokiko ekintza planaren ezaugarriak:

Iraunkortasunaren aldekoa: Udalerri iraunkorragoa lortzea da helburua eta horretarako garapen ekonomikoa, gizarte berdintasuna eta ingurumenaren zaintza bateratu behar dira, herritarren bizi kalitatea hobetuz.

Estrategikoa: Tokiko Ekintza Planak egin aurretik herriaren analisia eta diagnostikoa egin behar dira, etorkizuna baldintzatzen duten ahultasunak eta sendotasunak, mehatxuak eta aukera nagusiak identifikatzeko. Ekintza Planak plangintza estrategikorako tresnak dira eta arlo desberdinetako ikuspegi eta lehentasunetatik abiatu, lortu beharreko ikuspegi eta helburuak ezartzen dituzte.

Zeharkakoa: Tokiko komunitatearen iraunkortasunerako gakoak diren gai-esparru guztiak bateratzen ditu eta baita ere, esparruen arteko harremanak. Sektoreka baino, irtenbide globalak ematea da helburua, horren ondoriozko sinergiak errazteko.

Partaidetzakoa: Ekintza Planak eratzeko prozesuak udal egoeraren diagnostiko eta plangintzaren irizpide teknikoak partaidetzako jarduerekin uztartzen ditu. Udal errealitatean ahalik eta tokiko eragile eta ordezkari gehien txertatu nahi ditu, herriko ikusmolde eta sentsibilizazio gehienak bilduz. Horri esker ondokoak lor daitezke:

- Diagnostiko osatuagoa eta kalitate handiagokoa, biztanleen pertzepzioa eta udala kudeatzen duten teknikarien ezagutzak batuz.
- Tokiko komunitateko sektoreen aniztasunean parte hartzeko ikuspegi eta mekanismoak aintzat hartzen dituen Tokiko Ekintza Plana; horrela, herriaren lehentasunak hobetu txertatu ahal dira eta geroago, Plana burutzean, bideragarritasun sozial, tekniko eta ekonomiko handiagoa eman ahal zaio.
- Tokiko eragile guztiek Tokiko Ekintza Plana ezartzen parte hartzea, horren diseinuan lagundu baitzuten.



Tokiko Agenda 21

Operatiboa: Tokiko Ekintza Plana tresna erabilgarria izan behar da udal kudeaketarako; horregatik, funtzionala izateko ezaugarriak izan eta egin beharreko ekintzak zehaztu behar ditu, esaterako, arduradunak eta burutzeko egutegiak ezartzen.

EKINTZA PLANAREN EGITURAKETA

Tokiko Ekintza Planak Estrategia Ildoetan oinarritzen dira eta horiexek dira Planaren oinarritzko helburuak.

Estrategia-ildo bakoitzak helburu zehatzak ditu jarduteko programetan zehaztuta. Programa horien ekintzek Planaren oinarritzko unitatea osatzen dute eta ezaugarri berezi eta zehatzak behar dituzte.

Ekintza Plana egitean, lotutako adierazleak sartu dira estrategia-ildo bakoitzean, egoeraren erreferente gisa; horrela, aztertutako parametroen egoera zein den jakin dezakegu eta etorkizunean eboluzioa eta helburuak nola lortzen ari diren jakiteko balio izango digute.

Artzentalesko Iraunkortasunaren aldeko Tokiko Ekintza Planak 11 estrategia-ildo dauzka ondoko gaien inguruan: lurraldea, ingurumena, gizartea eta ekonomia, udal kudeaketa, komunikazioa eta herritarren partaidetza, herritarren partaidetzako foroak egin dituen proposamenekin bat etorriz.

ESTRATEGIA ILDOAK

1. ESTRATEGIA ILDOA

IRAUNKORTASUN-IRIZPIDEAK LURRALDE ANTOLAMENDUAN TXERTATZEA

P1. ETXEBIZITZARI BURUZKO OSOKO POLITIKAREN PROGRAMA.

- Etxebizitzen beharri zehatzari buruzko diagnostikoa egin.
- Etxebizitzak eraikitzea sustatu herritarren beharri zehatzaren arabera.

P2. ERAIKIN INTERESGARRIAK ZAHARBERRITZEKO PLANA EGITEKO PROGRAMA

- Herriko eraikin interesgarrien inbentarioa.
- Inbentarioko eraikinak zaharberritzeko programa.

LOTUTAKO ADIERAZLEAK

- Etxebizitzen okupazioa: hutsik dauden etxebizitzaren %.
- Hiriko berdeguneak: m² biztanleko.
- Urbanizatu gabeko lurzorua azalera: lurzorua %.
- Eraikinen zaharberrikuntza: Eraikin kopurua.

2 ESTRATEGIA ILDOA:

INGURUNE ETA BIODIBERTSITATEAREN KUDEAKETA IRAUNKORRA

P1. PAISAIA ETA EKOLOGIAKO INTERESEKO ALDEAK ETA ELEMENTUAK BABESTU ETA BERRESKURATZEKO PROGRAMA

- Bertako espezieen landatzeko proposamena egin.
- Ibaiertzeko landaredia hobetzeko plana.

P2. NATUR ONDAREAREN GIZARTE BALORAZIOA.



- Hiri barruko oinezkoen ibilbide sarea sortu.
- Dauden aisialdirako lekuak mantendu eta berriak sortu bisitariak erakartzeko, alde horretako berezko jarduera oztopatu gabe.

P3. LURZORUAREN ERABILERA HOBETU

- Lurraren erabilerei buruzko administrazioaren politika eta planak ezagutarazi eta koordinatu (basoak eta belardiak).

LOTUTAKO ADIERAZLEAK

- Aisialdirako landa-aldeak: m2
- Bertako espezieak bizi diren udal azaleraren ehunekoak, herriko azalera osoarekiko.

3. ESTRATEGIA ILDOA:

MUGIKORTASUNA ETA IRISGARRITASUNA HOBETZEA.

P1. MUGIKORTASUN IRAUNKORRERAKO NEURRIAK HARTZEKO PROGRAMA

- Autobusen maiztasuna areagotzeko aukerak aztertu.
- Bidegorria eraiki, Arenao eta Traslaviña arteko antzinako meatzaritzako plataforma erabiliz.
- Trenen maiztasuna areagotzeko aukerak aztertu.

LOTUTAKO ADIERAZLEAK

- Trafikoaren dentsitatea: udalerriko errepidetik egunean igarotzen diren ibilgailuen kopurua.
- Garraio publikoaren erabilera: Artzentalesera autobusez joaten diren bidaiarien kopurua.
- Joan-etorriak egiteko modu iraunkorrak: kilometroen kopurua bideetan, oinezko bide eta txirringa-bideetan.

4. ESTRATEGIA ILDOA

URAREN ZIKLOAREN KUDEAKETA IRAUNKORRA

P1. SANEAMENDUKO SAREA HOBETZEKO PROGRAMA

- Arazketa-sistemak ezartzeko aukerak aztertu.
- Euri-uren eta ur fekalen sarea bereizi.

P2. HORNIDURA-SAREA HOBETZEKO PROGRAMA

- Ur-biltegien klorazio eta analisis sistema hobetu.

P3. IBAI ETA ERREKASTOETAKO UREN KALITATEA ZAINTEKO PROGRAMA

- Ibai eta errekaetako uren kalitatea aldian-aldian kontrolatu.



P4. HERITARREN SENTSIBILIZAZIO PROGRAMA

- Sentsibilizazio kanpainak egin.

LOTUTAKO ADIERAZLEAK

- Edateko ura: kalitate estandarra gainditzen den egun-kopurua urtean.
- Edateko uraren etxeko kontsumoa: litro kopurua biztanleko eta eguneko.
- Ur beltzen arazketa: arazketa-sistemaren bat duten etxebizitzaren kopurua.
- Ibaiaren uraren kalitatea: BWMP adierazlea.

5. ESTRATEGIA ILDOA

HONDAKINEN KUDEAKETA IRAUNKORRA

P1. BILKETA-ZERBITZUAK HOBETZEKO PROGRAMA

- Edukiontzien beharrak, kokaleku egokia eta bilketaren maiztasuna azertu.

P2. SENTSIBILIZAZIO KANPAINAK EGI TEKO PROGRAMA

- Informazio kanpainak egin.

LOTUTAKO ADIERAZLEAK:

- Hiri-hondakinen ekoizpena: Kg biztanleko eta eguneko.
- Gaikako bilketaren ehunekoa bilketa osoarekiko.
- Edukiontzien ratioa: edukiontzien kopurua biztanleko.

6. ESTRATEGIA ILDOA

ENERGIAREN KUDEAKETA IRAUNKORRA

P1. ENERGIA-ERAGINKORTASUNA HOBETZEKO PROGRAMA

- Energia-eraginkortasun hobea kaleetako argietan eta udal instalazioetan.
- Hitzarmena EErekin udal instalazioetako energia-eraginkortasuna aztertzeko.
- Energia-eraginkortasuneko irizpideak erabili udal obren adjudikazioetan.

P2. SENTSIBILIZAZIO KANPAINAK

- Energiaren zentzuzko kontsumoari buruzko informazio eta sentsibilizazio kanpainak egin.

LOTUTAKO ADIERAZLEAK

- Energiaren kontsumoa udal instalazioetan: elektrizitatea, gasolia, gasa...

7. ESTRATEGIA ILDOA

GIZARTE-GARAPEN INTEGRALA

P1. GIZARTE ZERBITZUEN ESKAINTZA HERRITARREI

- Adinekoen segimendua egin eta gizarteratzea eta ongizatea lagundu.
- Osasun zerbitzuak erabiltzaileengana hurbildu.



- Gizarte zerbitzuak erabiltzaileengana hurbildu.

P2. KIROL, KULTUR ETA AISIALDIKO ESKAINTZA SORTU

- Kirol eskaintza beste udal batzuekin hitzarmenen bitartez egin.
- Kirol instalazioak hobetu eta handiagotu.
- Kultur eta jai egitarauaren prestaketan herritarrek parte hartu.
- Gazteentzako lokala.

P3. HIZKUNTZ NORMALIZAZIOA BULTZATU

- Euskararen transmisiorako programak ezarri.
- Euskara erabiltzeko programak ezarri.

P4. KALITATEKO DERRIGORREZKO HEZKUNTZAREN ESKAINTZA

- Artzentalesen Lehen Hezkuntzako eskola bermatu.
- Beste ikasketa-zentro batzuetara (unibertsitatea, prestakuntza-zikloak...) joateko garraioa eta irisgarritasuna hobetu.
- Udalerriko erdialdearen lehiakortasuna hobetu.

LOTUTAKO ADIERAZLEAK

- Bidaiarien garraioa osasun zerbitzuetara.
- Eskolako ikasleen kopurua.
- Bidaien kopurua beste zentro batzuetara.

8. ESTRATEGIA ILDOA

GARAPEN SOZIOEKONOMIKOA IRAUNKORTASUN IRIZPIDEEN ARABERA

P1. LEHEN SEKTOREA LAGUNTZA PROGRAMA

- Jokabide egokiak sustatu nekazaritza eta abeltzaintzako jardueretan.
- Ustiategi eta aziendaren erabilera hobetu.
- Sentsibilizazioa mota horretako jardueraren garrantziaren inguruan, ingurunea, bizi-kalitatea... zaintzeko.
- Lehen sektorean lan egin nahi dutenek lursailak eskuratzeko erraztasunak.

P2. BIGARREN SEKTOREA LAGUNTZEKO PROGRAMA

- Industriako lurzorua sustatu enpresa garbiak erakartzeko.
- Ingurumeneko egiaztagiriak sustatu herriko enpresetan.

P3. HIRUGARREN SEKTOREA LAGUNTZEKO PROGRAMA

- Herriko merkataritza sustatu.
- Zerbitzuen arloko ekimen ekonomikoak sustatu.
- Landa-turismo iraunkorra bultzatu.

P4. TOKIKO LANA ETA AUKERA BERDINTASUNA BULTZATZEKO PROGRAMA

- Enpresetarako pizgarriak sortu emakumeak kontratatzeko.
- Lana eta autoenplegua sustatu programa publikoen bidez (INEM, AUZOLAN, LANBIDE)



LOTUTAKO ADIERAZLEAK

- Ingurumeneko kudeaketa-sistemak dituzten industriak: ISO 14001 edo EMAS egiaztagiria duten enpresen kopurua
- Langabezia: biztanle aktiboen langabeziaren ehunekoa.
- Txirotasuna eta gizarte bazterketa: gizarte politikoetarako udal aurrekontuaren %

9. ESTRATEGIA ILDOA

PARTAIDETZA ETA KOMUNIKAZIOAREN SUSTAPENA

P1.HERRITARREK TOKIKO AGENDA 21EN PARTE HAR DEZATEN BULTZATZEKO PROGRAMA

- Herritarren partaidetzako foroaz jarraitu.
- Udalak antolatzen dituen ekintzetan herritarrek gehiago parte hartu.

P2. HERRITARREN KOMUNIKAZIOA BULTZATZEKO PROGRAMA

- Udalak egin edo udalean eragina duten ekintzen berri eman herritarrei.
- Tokiko Agenda 21 hedatzeko kanpainak.

LOTUTAKO ADIERAZLEAK

- Foroetako asistentzia: foroaren saioretara bertaratuen urteko batez bestekoa.
- Foroaren bilera-kopurua urtean.
- Komunikazio-egintzen kopurua urtean: argitaratutako buletin edo liburuxken kopurua edo publizitate kanpainak urtean.